

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

927

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 9koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2021eko ekainaren 8ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda.

Dirulaguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, 2021eko ekainaren 8ko Aginduak 9.3 artikuluan xedatzen duenez, dirulaguntza guztiak emandakoan onuradunen eta emandako diru kopuruaren zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Jendaurrean jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko ekainaren 8ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda eta emandako diru-kopurua arabera (ebazpen honen eranskinean jasotzen dira), Garraio Plangintzaren zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 9a.

Garraio Plangintzaren zuzendaria,
IVAN PEDREIRA LANCHAS.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Lurrealde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko ekainaren 8ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak eta emandako diru-kopuruak.

Onuraduna	Dirulaguntza (eurotan)
Transportes y Logística Carmelo SL	1.657,22
Egoki Logística SL	2.614,69
Nabari Logística SL	2.332,35
Hegoak Logística SL	2.167,05
Laurok Logística SL	1.952,70
Oreka Logística SL	1.036,20
Zubieta Logística SL	677,63
Autobuses Hermanos Arriaga SA	17.131,00
Autobuses La Guipuzcoana SL	12.320,00
Líneas Regulares de Álava SL	1.369,68
Alababus SL	17.200,00
Transportes Hijos de Ángel Carrasco SL	14.450,00
Gran Turismo Araba SA	17.200,00